CERMIN Navarra - Nafarroa

En Lectura Fácil

Nahi dugun etorkizuna.

Elkarrekin gehiago gara.

Manifestua*:
Pertsona talde baten ideiak jasotzen dituen dokumentua da.

Dokumentu hau CERMINek
martxoaren 8an,
Emakumearen Nazioarteko Egunean,
egin duen **manifestua*** da.
CERMIN Desgaitasuna duten Pertsonen
Erakunde Ordezkarien Batzordea da.

Manifestu honen bidez
desgaitasuna duten emakume eta neskok
beste urte batez salatu nahi dugu
herritar gisa ikusezinak garela
eta behin eta berriz gizartetik baztertzen gaituztela.

Azken urte hauetan
gure eskubideak hobetu egin dira,
eta gizartea gure errealitateaz
gero eta gehiago jabetzen da.
Baina oraindik asko dago egiteko.

Desgaitasuna duten emakume eta neskok
hainbat diskriminazio jasaten ditugu aldi berean.
Emakume izateagatik eta desgaitasuna izateagatik
diskriminazioa jasaten dugu.

Gainera, diskriminazio hau handiagoa da beste arlo batzuk kontuan hartzen baditugu, adibidez:

- Gure adina.
- Gure desgaitasun mota.
- Gure kultura.
- Landa-eremuan bizi bagara.
- Pobrezia-egoeran bagaude.
- Eta beste gauza batzuk.

Oso garrantzitsua da generoaren gaia desgaitasunaren politika publikoetan sartzea. Garrantzitsua da ere emakumeen eskubideak defendatzen dituzten politikek eta legeek desgaitasunaren gaia kontuan hartzea.

Horrela bakarrik lor dezakegu gizarte:

- **Antikapazitista** bat,
  hau da, pertsonen balioa ez dadila dituzten gaitasunen arabera neurtu. Adibidez, pertsona bati gauzak ulertzea gehiago kostatzen bazaio, horrek ez du esan nahi besteek baino gutxiago balio duenik.

- **Inklusiboa** bat,
  hau da, ez dezala inor kanpoan utzi.

- **Feminista** bat, hau da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bila dezala.

- **Giza eskubideak** bete ditzala eta desgaitasuna duten emakume eta nesken **askatasuna** errespetatu dezala.

Horregatik guztiagatik desgaitasuna duten emakume eta neskek honako hau eskatzen dugu:

Hezkuntzan:

- Hezkuntza inklusiboa eta kalitatezkoa izan dadila.

- Behar adina baliabide erabil daitezela.

- **Metodologia** onak erabil daitezela, hau da, irakasteko teknika onak.

- Profesionalek desgaitasunen bat duten neska eta emakumeen beharrei erantzuteko prestakuntza egokia izan dezatela.

- Formakuntzaren etapa guztietan aniztasunari erantzuteko behar diren laguntzak eman daitezela.

Enpleguan:

Honakoa kontuan izan dadila:

- Desgaitasuna duen emakume bakoitzaren egoera, eta emakume horien amen eta zaintzaileen egoera.

- Desgaitasuna duten emakumeontzat lana lortzea zailagoa dela eta lortzen ditugun lanek baldintza okerragoak dituztela. Gainera, lan bera egiteagatik gizonek baino diru gutxiago kobratzen dugu.

Osasunean:

- Desgaitasuna duten emakumeak eta neskatoak osasun-zerbitzuez baliatu ahal izatea.

- Sexu eta ugalketa-osasuneko zerbitzuez baliatu ahal izatea.

- Gure gorputzei buruz erabakiak hartzeko eskubidea errespetatzea, adibidez, antisorgailuak erabili nahi ditugun ala ez erabakitzeko.

Zaintzetan:

- Lana, familia eta autozainketa **bateratzeko*** modu bat aurkitzea.

- Pertsona guztiek,
  bai emakumeek, bai gizonek,
  zaintzak egin ditzatela,
  eta zaintzak komunitatean egin daitezela.

Bateratzea*:
Bateratzea adibidez,
lan egin ahal izatea
eta aldi berean
familiarekin behar adina denbora
egon ahal izatea da.

Bizi-proiektuetan eta autonomia pertsonalean:

- Desgaitasuna duten emakumeok
  non, nola eta norekin bizi nahi dugun
  erabaki ahal izatea.

- Gure bizi-proiektua,
  hau da, gure bizitzan nahi duguna,
  modu independente batean garatu ahal izatea.

- Politika publikoek autonomia pertsonalean
  eta **mendekotasunaren*** arretan lagundu dezatela.

- Bizitzaren etapa guztietan,
  hau da, haurtzaroan, gaztaroan,
  helduaroan eta zahartzaroan,
  gure iritziak, lehentasunak eta nahiak
  errespeta daitezela.

Mendekotasuna*:
Pertsonek mendekotasuna dute
adinagatik, gaixotasun batengatik
edo desgaitasunen bat izateagatik
laguntza behar dutelako.

Lidergoan eta parte-hartzean:



- Desgaitasuna dugun emakumeei eta neskei ahalduntzean, lidergoan eta parte-hartze politikoan laguntza eman diezagutela.
  Ahalduntzeak boterea ematearekin eta indartsua izatearekin zerikusia du.
  Lidergoa izateak lider ona izatearekin zerikusia du, hau da, talde bat zuzentzen duen pertsona izatearekin.

- Politika publikoak diseinatzerakoan desgaitasuna dugun emakumeok erabakiak hartu ahal izatea eta hitza eta botoa izatea.

Pobrezia:

- Honako pertsona hauen pobrezia-maila murrizteko ekintza zehatzak egin daitezela:
  - Desgaitasuna duten emakumeak eta neskatoak.
  - Desgaitasuna duten pertsonen amak.
  - Desgaitasuna duten pertsonak zaintzen dituzten emakumeak.

- Gastu gehiago ditugulako eta gutxiago kobratzen dugulako jasaten dugun desberdintasuna konpentsatu dadila.

Irisgarritasun Unibertsalean:

- Bizitzako esparru guztietan Irisgarritasun Unibertsalari buruzko arauak bete daitezela.

- Gizartea inklusiboa izan dadila.
- Gainontzeko herritarren baldintza berdinetan parte hartu ahal izatea.

Hau da nahi dugun etorkizuna
eta horregatik borrokan jarraitzen dugu.

Elkarrekin gehiago gara!